

Astelehen honetan, Donostia International Physics Center-ek (DIPC) Passion for Knowledge-en inaugurazio ekitaldia ospatuko du, bere 10. urteurrena gogoratzeko antolatutako Ezagutzaren Jaialdian.

Isabel Celaá, Eusko jaurlaritzako Sailburua eta Pedro Miguel Etxenike, DIPC-ko Lehendakaria izango dira ekitaldiko Presidenteak. Hau Robert Langer, farmakoen liberazio inteligentearen aitatzat hartzen den Asturiasko Printzea Sariaren eta Aaron Ciechanover, medikuntza pertsonalizuaren garai berrien sustatzaile den Nobel Sariaren hitzaldiekin burutuko dute ekitaldia.

Hamar Nobel Sari, hainbat Asturiasko Printzea Sari, Lorentz Domina eta diziplina zientifiko, artistiko eta kulturaletako pertsonalitate nabarmenek irailak 27tik urriak 1era, publikoari bereziki zuzendutako jarduera programa zabal eta anitzean parte hartuko dute.

Aldi berean, nazioarteko komunitate zientifikoari zuzendutako “Workshop” direlakoak egingo dira.

Astelehen honetan, irailak 27an, Kursaal Aretoak Pasion for Knowledge ofizialki inauguratuko duen ekitaldia jasoko du, International Physics Center-ek (DIPC) gizarte gipuzkoarrarekin bere bigarren hamarkadaren hasiera ospatu nahi duen Ezagutzaren Jaialdia.

Hitzaldiek, topaketek, dokumentalek, erakusketek eta beste jarduera batzuek osatuko dute publiko zabalari zuzendutako asmo handiko programa. Bertan, 10 Nobel Sari, Lorentz Domina, Asturiasko Printzea Sari eta zientzia, arte eta kultur arloetako beste hainbat pertsona nabarmentzen diren zientzialari sorta zabal eta jakintsu batek parte hartuko du.

Jaialdi honek DIPC delakoak gipuzkoar gizartearengana zientzia gerturatzeko duen konpromisoari erantzuten dio, modu eskuragarri eta entretenituan, ezagutzarekin pasioa eta bereziki gazteen artean zientzia eta ikerketaren bokazioa kutsatzeko helburuarekin.

Apustu dibulgatzaile hau, azken hamar urteotan DIPCren lanaren ikur izan den ezagutza eta sormenaren pasioaren ildotik doa, baita zientziaren bidez, garapen eta gizartearen ongizatearen alde egiteko nahiaren bidetik ere.

Inaugurazio ekitaldia 17:30etan hasiko da eta **Isabel Celaá**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak eta DIPC-eko presidentea eta Jaialdiko *Chairman* den **Pedro Miguel Etxenikek** presidituko dute. Eta 2008an Ikerketa Zientifiko eta Teknikoan Asturiasko Printzea Saria eskuratu zuen **Robert Langer**-en **“Biomaterial berritzaileak”** eta 2004an Kimika Nobel Saria irabazitako **Aaron Ciechanover**-en **“Farmakoen garapena XXI. Mendean – Gaixotasun guztiak sendatuko al ditugu?”** hitzaldiekin osatuko da.

Mediku terapia pertsonalizuaren kontrol eta domeinurako bidea

“Biomaterial berritzaileak” titulupean, Robert Langer-en hitzaldiak, gizakiaren gorputzean farmakoen liberazio eta banaketa inteligentearen alorrean eginiko ikerketetatik eratorritako mediku terapia berriak jasotzen ditu.

Medikamendu dosi egoki eta kontrolatuen garraio segurua eta banaketa ahalbidetzen duten sistema berritzaileak, adibidez, buruko minbizia, edo prostatako minbiziaren zelula kaltegarrietan zehaztasun handiagoarekin eragitea ahalbidetzen du.

Aldi berean, Langer irakasleak, hainbat gaixotasun sendatzeko itxaropenarekin bideratutako ehunen ingeniariak gainerakorraren fokapen berriak azalduko ditu. Eta ildo horretatik jarraituz, kartilago, azal eta bizkarmuinaren adibideak aipatuko ditu.

Robert Langer farmakoen liberazio inteligentearen aitzat hartzen dute. Bere ikerketek 170 errekonozimendutik gora merezi izan dituzte, hauen artean, Estatu batuetako Zientzia Domina nazionala, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko Asturiasko Printzea Saria 2008 eta Milurteko Teknologia Saria, Teknologia arloko Nobeltzat hartzen dutena. Gaur egun, Massachusetts-eko Teknologia Institutuko (MIT) irakaslea da, baita, toki berean, nazioarteko garrantzia duen ingeniari-tza biomedikoko laborategi bateko zuzendaria ere.

Aaron Ciechanover, Kimika Nobel sariaren **“Farmakoen garapena XXI. Mendean – Gaixotasun guztiak sendatuko al ditugu?”** bigarren hitzaldia “medikuntza pertsonalizatuaren” garai berrien inguruan arituko da, bertan, tratamendua neurritara egiten da, pazientearen profil molekular/mutazionalaren arabera.

Teknologia berrien garapenera bideratutako garai berrietan murgilduko du publikoa, partikularki genoma bat sekuentziatu eta prozesatzeko, modu merke eta azkarrean gainera, horrela, gaixotasun bakoitzerako markagailu zehatzak identifikatu eta mekanismo bakoitzarentzat sortutako medikamendu berriak zuzendu behar diren dianak diseinatzeko.

Fokapena aldatzeko beharra eta espezializaziotik, diziplinen arteko lanera aldatzeko beharra ulertzea ahalbidetuko digun tratamendu **“bakarreko”** garaietatik, **“medikuntza pertsonalizatuaren”** garaietaraino eginiko ibilbidea.

Aaron Ciechanover-ek medikuntza ikasi zuen Jerusalemeko Unibertsitate Hebrearrean eta biologian doktoratu zen Technion, Israelgo Teknologia Institutuan. 2002. urtean, Kimika Nobel saria jaso zuen, ubikitinen bidez, proteinen degradazioaren aurkikuntza egiteagatik. Honek, paziente bakoitzaren partikularitasunera tratamenduak egokitzean oinarritutako medikamenduen garapena ahalbidetu du. Biokimika Unitateko irakaslea eta Technion-en Rappaport Familiaren Ikerkuntza Medikurako Zuzendaria da.

Patroi pribatuei omenaldia eta Topaketa Biosanitarioa

Astelehen honetan bertan, 12:00etan, Donostiako Udaletxeko Udalbatza Aretoan DIPC-en patroi pribatuei omenaldia egingo zaie: Kutxa, Naturgas, Telefonica, CAF eta Mapfre.

9:00etan **Aaron Ciechanover** eta **Richard Ernst** Nobel Sariak, eta **Robert Langer** Asturiasko Printzea Sariak beren esperientziak partekatuko dituzte, osasun alorreko ikertzaile eta ordezkariekin, **Zientziaren Kutxagunean** izango den **“Topaketa Biosanitarioan”**

Aste osoan zehar, arratsaldez gai zientifikotan aditua ez den publikoari bideratutako hitzaldiak izango dira, Kurasaaleko ganbera Aretoan. Sarrera doan da, baina ezinbestekoa da www.dipc10.eu web gunean edota 943 01 53 68 telefonoan izena ematea. Hitzaldi hauek www.dipc.tv kanaletik zuzenean jarraitu ahal izango dira.

Aldi berean, goizetan nazioarteko komunitate zientifikoari zuzendutako “Workshop” direlakoak egingo dira, hamarkada honetan DIPCen garatutako ikerketa ildo nagusietako ikertzaile nabarmenenen partaidetzarekin.

Gainera, astearte honetan, eskolako ume eta bi Nobel Sari eta Asturiasko Printzea Sari baten arteko bigarren topaketa bat izango da. Asteazkenean, DBH eta Batxilergo irakasleek beste bilera bat izango dute hiru Nobel sarirekin. Eta ostegunean, Aquariumean, Ada Yonath, Kimika Nobel Sariak eta legenda bizitzat hartzen duten Sylvia Earle ozeanografoak topaketa bat izango dute eskola umeekin.

Bretxan eta Aquairumean erakusketa zientifiko-artistiko bana bisitatu ahal izango da.

Oharra: Informazioa zabaldu, edota elkarrizketak hitzartu nahi dituzten komunikabideak Prentsa Kabinetearekin harremanetan jar daitezke 943 310831 edo 658 750 666 telefonoetara deituta.